



EAEn BIZITEGI BAZTERKETA LARRIA BIZI DUTEN PERTSONEN INGURUKO III. AZTERLANA

1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan biltzen dira urriaren 26tik 27rako gauean, kale gorrian aurkitzen ziren pertsonen zenbaketaren lehen emaitzak. Zenbaketa EAEko 24 udalerritan egin zen aldi berean. Jarduera hau “noches s” (hitza ingeleseko *shelter and street-night* delakotik hartu da) edo gaueko errolda-zenbaketak izeneko esperientzia oinarritzen da. Zenbaketa horiek gero eta maizago egiten dira gure inguruko hiritan. Literalki etxerik gabe dauden edo aldi baterako aterpetxetan edo beste bizileku-baliabide batzuetan lo egiten duten pertsonen zenbaketa hauek laurogeiko hamarkadan hasi ziren egiten munduko hiri handi askotan. Oso baliagarriak dira, une jakin batean, zenbat pertsona diren eta zein ezaugarri dituzten ezagutzeko.

EAEn honen antzeko zenbaketak 2010. urteaz geroztik egiten dira. Azterlan honen aurretik, 2010eko ekainean Bilbon, 2011ko martxoan Donostian eta 2012an eta 2014an EAEko zenbait udalerritan antzeko zenbaketak egin ziren. 2012an kalean egindako gaueko zenbaketak Donostian, Bilbon eta Gasteizen burutu ziren. 2014an, berriz, beste zazpi udalerritan ere egin ziren: Barakaldo, Getxo, Irun, Audio, Santurtzi, Sestao eta Portugalete. Aurten, 2016an, 2014ko hamar udalerriez gain, Euskadiko beste hamalau udalerrri hauetan egin da zenbaketa: Durango, Eibar, Erandio, Errenteria, Güeñes, Hernani, Iurreta, Legazpi, Leioa, Pasaia, Tolosa, Urduña, Zalla eta Zarautz. Guztiak batera hartuta, hogeita lau udalerrri hauetan EAEko gaur egungo biztanle guztien % 65a biltzen da.

Kasu honetan, eta lehen aldiz, *EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoerak ikertzeko, jarraitzeko eta analizatzeko erakundeen arteko lankidetzaren protokoloaren* esparruan egin da zenbaketa. Protokolo hau 2016ko uztailaren 26an sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako, hiru Foru Aldundietako, hiru hiriburuetako (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) udaletako eta EUDEL Euskadiko Udalaren Elkartearen ordezkariak. Protokoloaren helburu nagusia da gizarte-bazterketa larriaren fenomenoak ikertzeko, hausnartzeko eta analizatzeko jarduerekin lotuta, elkarlanerako esparru egonkorra finkatzea.

Ondoren emango diren datuak urriaren 26tik 27rako gauean kalean lo egin zuten pertsonen soilik badagozkie ere, EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko azterlan zabalago baten zati dira. Azterlan hori 2017an argitaratuko da. Aurretik egindako beste biak bezala, azterlan hau FEANTSAk (etxerik ez duten pertsonen lan egiten duten Elkartea Nazionalen Europako Federazioa) garatutako kontzeptu-esparruan oinarrituko da eta, zehazki, ETHOS (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*) tipologian. Tipologia honen arabera kontzeptuzko 4 kategoria finkatzen dira (bizilekurik ez dutenak, etxebizitzarik ez dutenak, etxebizitza ez segurua dutenak eta etxebizitza desagokia dutenak). Eta hauen barruan, berriz, 13 kategoria operatibo daude. Kategoria horiek aldatuz doaz. Bertan, egoera diferentetan dauden pertsonak hartzen dira kontuan; besteak beste, literalki kalean dauden eta lotarako espazio publikoak erabiltzen dituzten pertsonak edo, lotarako leku bat baduten arren, jende gehiegi dagoen etxebizitzetan bizi diren pertsonak. Hala ere, azterlan honen diseinuan egoera larrienak baino ez dira aipatuko. Horien artean daude kalean lo egiten duten pertsonak eta etxerik ez dutenei eskainitako aterpetxetan edo beste bizileku batzuetan gaua ematen duten pertsonak.

Emaitzen aurrerapen honetan, beraz, lehen aipatutako EAEko 24 udalerritan gauez kalean egindako zenbaketa baino ez da kontuan hartzen. Dena dela, aipatu behar da, zenbaketa hori egin zen gauean, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta emateko EAEn kokatutako bizilekuak dituzten zerbitzuetan eta zentroetan urriaren 26tik 27ra bitarteko gaua eman zuten pertsonak ere zenbatu zirela. Zenbaketa horiek egiteko udalen, Foru Aldundien eta azterlanaren barne hartutako baliabideak kudeatzen dituzten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak laguntza izan dugu.



2. BOLUNTARIOEN PARTE-HARTZEA

Zenbaketa hau boluntarioen parte-hartzeari esker egin ahal izan da. Aurten, jarduera honetan 1.022 boluntariok hartu dute parte, hots, 2014an parte hartu zutenak (780) baino %31 gehiago, eta 2012koak (678) baino %50 gehiago. Pertsona hauek, urriaren 26tik 27rako gauean, 22:00etatik 2:00etara kalez kale egin zen datu bilketan ibili ziren, zonaldeka eta taldetan antolatuta. Guztira, boluntario gisa parte hartu zuten pertsonen %60 emakumeak izan ziren (% 68 2014an). Boluntarioen inplikazio maila hau lortzea ahalbidetu duena, hirugarren sektoreko hainbat gizarte-erakunderen, unibertsitateen eta gizarte-zerbitzuen esparruko profesionalen laguntza izan da batik bat.

Ondoren, jarduera honetan boluntario gisa parte hartu zuten pertsonak, sexuaren eta udalerriaren arabera nola banatzen diren adieraziko dugu.

1. taula. Udalergi bakoitzean kalean dauden pertsonak zenbatzen parte hartu duten boluntarioak. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

		Gizonak	Emakumeak	Guztira
Araba	Laudio	6	7	13
	Vitoria-Gasteiz	36	118	154
	Guztira	42	123	165
Bizkaia	Barakaldo	13	19	32
	Bilbo	66	154	220
	Durango	5	12	17
	Erandio	20	30	50
	Getxo	22	46	68
	Güeñes	1	3	4
	Iurreta	2	0	2
	Leioa	19	24	43
	Portugalete	9	12	21
	Santurtzi	7	10	17
	Sestao	2	0	2
	Urduña	0	2	2
	Zalla	1	3	4
	Guztira	167	315	482
Gipuzkoa	Donostia	42	109	151
	Eibar	11	11	22
	Errenteria	22	13	35
	Hernani	21	11	32
	Irun	16	37	53
	Legazpi	6	10	16
	Pasaia	4	6	10
	Tolosa	10	22	32
	Zarautz	6	16	22
	Guztira	138	235	373
Guztira		347	675	1.022

3. KALEAN DAUDEN PERTSONEN GAUEKO ZENBAKETAREN EMAITZAK

Kalean egindako landa-lana urriaren 26tik 27rako gaueko 22:00etatik 2:00etara burutu zen. Jardueraren funtsa, udalergi bakoitzeko kaleetan barrena ibiltzea eta kalean –aire zabalean, erabilera publikoko espazioetan, edo bizitzeko egokia ez zen beste edozein lekutan– lo zeuden pertsonak zenbatzea izan zen.

Zenbaketa hori egin ahal izateko, zenbaketaren aurreko asteetan, udalergi bakoitzean jardueraz arduratzen ziren taldeek hainbat zeregin izan zituzten. Horien artean, honakoak azpimarra daitezke: udalergi guztietan jarduteko jarraibide komunak ezartzeko bilera teknikoetara joatea, boluntarioak bilatzea, eta hauek taldetan antolatzea, udalergi bakoitzak zehaztutako eremu geografikoetan jarduteko. Halaber, eta zenbaketa egin aurretik, boluntarioei zuzendutako hainbat prestakuntza-jarduera burutu zituzten.



Bestalde, zenbaketa hasi baino ordubete lehenago gutxi gorabehera, jardueraz arduratzen ziren taldeek boluntario guztiak leku berean bildu zituzten. Biler horretan, zenbaketa inguruko oinarritzko jarraibide batzuk gogoratu zituzten, zalantzak argitu eta hainbat material banatu zuten; tartean, kalean bizi diren pertsonen zuzenduriko galdeketa baten hainbat kopia.

Galdeketa 45 galderaz osatua zegoen, eta helburua kalean aurkitutako pertsonen oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak, egoera administratiboa, osasun-egoera eta familia-harremanei buruzko informazioa biltzea zen. Halaber, galdeketa erantsita, oharren fitxa bat banatu zen, oso oinarritzko identifikazio- eta lokalizazio-datuak biltzeko. Oharren fitxa horiek kalean lotan aurkitutako pertsona bakoitzeko betetzekoak ziren. Galdeketa, berriz, esna egonik, elkarrizketa egitea onartzen zuten pertsonen egitekoak ziren.

Ondoren, udalerri bakoitzean kalean aurkitutako pertsonen banaketa erakusten duen taula ikus daiteke. Taulan, gainera, zenbatu ziren pertsonen guztizko kopurua, alde batetik, eta, bestetik, galdeketa erantzutea onartu zuten pertsonak bereizten dira.

2. taula. Udalerrri bakoitzean kalean aurkitutako pertsonen zenbaketa emaitzak. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

		Aurkitutako pertsonak				Elkarrizketatutako pertsonak		
		Gizonak	Emakumeak	*Zehaztu gabe	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Araba	Laudio	0	0	0	0	0	0	0
	Vitoria-Gasteiz	30	6	0	36	22	3	25
	Guztira	30	6	0	36	22	3	25
Bizkaia	Barakaldo	13	6	0	19	9	1	10
	Bilbo	104	4	4	112	61	1	62
	Durango	2	0	0	2	1	0	1
	Erandio	3	0	0	3	2	0	2
	Getxo	15	0	0	15	13	0	13
	Güeñes	0	0	0	0	0	0	0
	Iurreta	2	0	0	2	0	0	0
	Leioa	0	0	0	0	0	0	0
	Portugalete	1	1	0	2	0	0	0
	Santurtzi	4	2	0	6	3	1	4
	Sestao	0	0	0	0	0	0	0
	Urduña	0	0	0	0	0	0	0
	Zalla	2	0	0	2	2	0	2
	Guztira	146	13	4	163	91	3	94
Gipuzkoa	Donostia	38	4	2	44	21	3	24
	Eibar	3	1	0	4	3	1	4
	Errenteria	9	0	0	9	9	0	9
	Hernani	0	0	0	0	0	0	0
	Irun	14	2	1	17	12	1	13
	Legazpi	0	0	0	0	0	0	0
	Pasaia	3	1	0	4	1	0	1
	Tolosa	3	0	0	3	2	0	2
	Zarautz	5	0	0	5	1	0	1
	Guztira	75	8	3	86	49	5	54
Guztira		251	27	7	285	162	11	173

*Lotan zeudenez ezin izan zen euren sexua zehaztu.




Aipatutako 24 udalerrietan, guztira, 285 pertsona aurkitu ziren. Zenbatutako pertsona guztien artean, bi heren inguru –zehazki, %67a– hiru hiriburuetakoa batean aurkitu zituzten. Bilbon 112 pertsona aurkitu zituzten (kalean zenbatutako guztien % 39), Donostian 44 (%15) eta Gasteizen 36 (%13). Gainerako udalerrietan, guztira, 93 pertsona zenbatu zituzten.

Kalean aurkitutako pertsona guztietatik 251 gizonak ziren eta 27 emakumeak. Gainerako kasuetan – zenbatutako 285 kasuetatik 7tan– ezin izan zen jakin gizonak ala emakumeak ziren. Oro har, aurkitutako pertsonen %9,5 baino ez ziren emakumeak. Bestalde, ikusi da hiriburuetan aurkitutako emakumeen proportzioa (%7,3) gainerako udalerrietan aurkitutakoa (%14) baino pixka bat txikiagoa dela.

Zenbatutako pertsonen ezaugarri pertsonalak alde batera utzita, zenbaketa orokorretik ateratako datuak era erlatiboan aztertzen badira –hau da, udalerrri bakoitzean bizi den biztanle-kopurua kontuan hartzen bada–, ikus daiteke Iurreta, Bilbo, Irun eta Pasaia direla, hurrenkera horretan, kalean aurkitutako pertsonen tasa handiena duten udalerrriak. Ondoren Donostia, Zalla, Errearteria eta Zarautz daude. Aztertutako 24 udalerrietatik 7tan, ez zen kalean pertsona bakar bat aurkitu.

**1. grafikoa. Udalerrrien arabera, kalean aurkitutako pertsonen tasa (mila biztanleko).
2016ko urriaren 26tik 27rako gaua**





2014an burututako kontaketan 10 udalerrik soilik parte hartu zuten arren, orduan baino 36 pertsona gutxiago atzeman dira kalean 2016an. Honen arrazoia, neurri handi batean, Donostia, Bilbo edo Irun bezalako hirietan gertatu den beherakada nabarmena izan da: 2014an baino 45 pertsona gutxiago Donostian, 29 Bilbon eta 22 Irunen.

3. Koadroa. Kalean aurkitutako kontaketa-aren emaitzen bilakaera udalerrika.

	2012	2014	2016	Bilakaera 2014-16
Barakaldo	--	9	19	+10
Bilbao	148	141	112	-29
Donostia	66	89	44	-45
Durango	--	--	2	--
Eibar	--	--	4	--
Erandio	--	--	3	--
Errenteria	--	--	9	--
Getxo	--	20	15	-5
Güeñes	--	--	0	--
Hernani	--	--	0	--
Irun	--	39	17	-22
Iurreta	--	--	2	--
Laudio	--	3	0	-3
Legazpi	--	--	0	--
Leioa	--	--	0	--
Pasaia	--	--	4	--
Portugalete	--	2	2	=
Santurtzi	--	3	6	+3
Sestao	--	0	0	=
Tolosa	--	--	3	--
Urduña	--	--	0	--
Vitoria-Gasteiz	29	17	36	+19
Zalla	--	--	2	--
Zarautz	--	--	5	--
Total	243	323	285	--

(--) Ez zuten kontaketa-aren parte hartu.